

## III - BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

### HERRI KONTUEN EUSKAL EPAITEGIA

#### **Erabakia, Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osokoak 2019ko irailaren 26ko bilkuran hartua EAEko Udal Entitateen kontuen 2017ko txostena, behin betiko onesten duena**

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osokoak 2019ko irailaren 26an egindako bilkuran:

#### ERABAKI DU

EAEko Udal Entitateen kontuen 2017ko txostena behin betiko onestea, Erabaki honen eranskin modura ageri dena.

HKEEren 1/1988 Legearen 13.2 atalak aurreikusten duena betez, txostenaren ondorioak dagozkion aldizkari ofizialetan argitaratzeko xedatzea.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko irailaren 26a

*HKEEren lehendakaria*  
**JOSÉ LUIS BILBAO EGUREN**

*HKEEren idazkari nagusia*  
**JULIO ARTETXE BARKIN**

#### ERANSKINA

#### EAEKO UDAL ENTITATEEN KONTUEN 2017ko txostena

Laburdurak.

10/2003 FA: 21/2003 Foru Araua, abenduaren 2koa, Bizkaiko Lurralde Historikoaren Toki Entitateen aurrekontuei buruzkoa.

21/2003 FA: 21/2003 Foru Araua, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Toki Entitateen aurrekontuei buruzkoa.

3/2004 FA: 3/2004 Foru Araua, otsailaren 9koa, Arabako Lurralde Historikoaren Toki Entitateen aurrekontuei buruzkoa.

EAE: Euskal Autonomia Erkidegoa.

GODG: Gastu orokorretarako diruzaintza geldikina.

HKEE: Herri-Kontuen Euskal Epaitegia.

LH: Lurralde historikoa.

## Aztertutako Ratioak.

Berehalako likidezia	Funts likidoak / Pasibo arrunta.
Likidezia epe laburrera	Funts likidoak + Kobratzeko eskubideak / Pasibo arrunta.
Likidezia orokorra	Aktibo arrunta / Pasibo arrunta.
Zorpetzea biztanleko	Pasibo arrunta + Pasibo ez arrunta / Biztanle kopurua.
Zorpetzea	Pasibo arrunta + Pasibo ez arrunta / Pasibo arrunta + Pasibo ez arrunta + Ondare garbia.
Zorpetze maila	Pasibo arrunta / Pasibo ez arrunta.
Cash-Flow	Pasibo ez arrunta + Pasibo arrunta / Eskudiruzko fluxu garbiak, eskudiruzko fluxuen egoera kudeatzeko jarduerengatik.
Ondare eta ekonomia-emaizaren kontuaren ratioak	Sarrerren egitura: Zerga eta hirigintzako diru-sarrerak / Kudeaketa arrunteko sarrerak. Jasotako diru-laguntza eta transferentziak / Kudeaketa arrunteko sarrerak. Salmentak eta zerbitzu-ematea / Kudeaketa arrunteko sarrerak. Kudeaketa arrunteko gainerako sarrerak / Kudeaketa arrunteko sarrerak. Gastuen egitura: Langileria-gastuak / Kudeaketa arrunteko gastuak. Emandako diru-laguntza eta transferentziak / Kudeaketa arrunteko gastuak. Hornidurak / Kudeaketa arrunteko gastuak. Kudeaketa arrunteko gainerako gastuak / Kudeaketa arrunteko gastuak. Gastu arrunten estaldura: Kudeaketa arrunteko gastuak / Kudeaketa arrunteko sarrerak.
Zorpetze finantzariora sarrera Arrunten gainean	Pasibo arrunta (finantzariora)+Pasibo ez arrunta (finantzariora) / Eskubide aitortu garbiak (1etik 5erako kap.)
Zorpetze finantzariora amortizatzeke balioetsitako epea.	Pasibo arrunta (finantzariora) + Pasibo ez arrunta (finantzariora) / Eskubide aitortu garbiak (1etik 5erako kap.)-Obligazio aitortu garbiak (1etik 4rako kap.)
Sarrerren aurrekontuaren egikaritzea	Eskubide aitortu garbiak/Sarrerren behin betiko aurreikuspenak. Eskubide aitortu garbiak (1etik 3ra, 5, 6 eta 8 kap. + jasotako transferentzia / Eskubide aitortu garbiak.
Autonomia	Eskubide aitortu garbiak (zerga izaerako sarrerena) / Eskubide aitortu garbiak.
Autonomia fiskala	Eskubide aitortu garbiak (4 eta 7 kap.) / Eskubide aitortu garbiak.
Jasotako diru-laguntzekiko mendekotasun indizea.	Diru-bilketa garbia / Eskubide aitortu garbiak.
Kobrantzak gauzatzea	Kobratzeko dauden eskubideak (1etik 3rako kap.) / Eskubide aitortu garbiak (1etik 3rako kap.) *365.
Kobrantza osorako batez besteko aldia 1etik 3rako kap.	
Gastuen aurrekontuaren egikaritzea	Obligazio aitortu garbiak / Gastuen kreditu behin betikoak. Langileria-gastuak / Eskubide aitortu garbiak (1etik 5erako kap.).
Langileria-gastuen indizea	Obligazio aitortu garbiak (6 eta 7 kap.) / Obligazio aitortu garbiak.
Inbertsio ahalegina	Obligazio aitortu garbiak (3 eta 9 kap.) / Eskubide aitortu garbiak (1etik 5erako kap.).
Ekitaldiko finantza zama	Obligazio aitortu garbiak / Biztanle kopurua.
Gastua biztanleko	Obligazio aitortu garbiak (6 eta 7 kap.) / Biztanle kopurua.
Biztanleko inbertsioa	Gauzatutako ordainketak / Obligazio aitortu garbiak.
Ordainketak gauzatzea	Ordaintzeko dauden obligazioak (2. eta 6. kap.) / Obligazio aitortu garbiak (2. eta 6. kap.) * 365.
2. eta 6. kap. ordaink. batez best. Epe globala	Eskubide aitortu garbiak (1etik 5erako kap.) / Obligazio aitortu garbiak (1, 2 eta 4 kap.) / Biztanle kopurua.
Aurrezki gordin ez finantzariora biztanleko	Aurrezki gordin ez finantzariora-Finantza zama (gastuen 3 eta 9 kap.) / Biztanle kopurua.
Aurrezki garbia biztanleko	Eskubide aitortu garbiak (1etik 5erako kap.)-Obligazio aitortu garbiak (1etik 4rako kap.) / Eskubide aitortu garbiak (1etik 5erako kap.).
Aurrezki gordinaren indizea	
Aurrezki gordinaren indize ez Finantzariora	Eskubide aitortu garbiak (1etik 5erako kap.)-Obligazio aitortu garbiak (1, 2 eta 4 kap.) / Eskubide aitortu garbiak (1etik 5erako kap.).
Biztanleko superabita edo defizita.	Doitutako aurrekontu emaitza / biztanle kopurua.
Zalantzako kobragarritasuna duten zordunen indizea	Zalantzako kobragar. saldoak / kobratzeko dauden zordunak.
Ekitaldi itxietako kobrantzak gauzatzea	Kobrantzak / Eskubideen hasierako saldoa (+ - aldaketak eta balio gabetzeak).
Ekitaldi itxietako ordainketak gauzatzea	Ordainketak / Obligazioen hasierako saldoa (+ - aldaketak eta balio gabetzeak).

**I. Sarrera**

HKEE honek hezurmamitu duen Lanerako Programa betez, EAeko udalen eta udalaz gaindiko entitateen 2017ko kontu orokorrak aztertu dira, ikuspegi formala eta kualitatiboa oinarri hartuta.

Toki Entitateentzat aurrekontu gaietan erregulazio orokor oinarrizkoa osatzen dute Toki Jaurbi-dearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta Toki Ogasunak Arautzen dituen Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak.

EAeren esparruan Lurralde Historiko bakoitzaren Batzar Nagusiek onartutako indarreko arautegia 3/2004 FA, 10/2003 FA eta 21/2003 FA da. Hiru lurralde historikoetako udalen aurrekontu likidazioari eta Kontu Orokorrari dagokion dokumentazioa, Aurrekontuko Foru Arau bakoitzaren 47 eta 62 artikuluek arautzen dute.

Aurreko urteetan egin dugun legez, txosten-diagnostiko hau EAEn 2017ko ekitaldian zeuden 252 udal administrazioei eta udalaz gaindiko 63 entitateei soil-soilik dagokie (ez ditu besarkatzen erakunde autonomoak, sozietate publikoak, entitate publikoak eta mendeko fundazioak). Hona hemen horien xehakapena:

- 18 partzuergo.
- 34 mankomunitate.
- 6 kuadrilla.
- 5 partzoneria.

Abenduaren 20 27/2016ko Foru Dekretu bidez onartu da Ezkio-Itsaso udalerritik Itsaso be-reiztea eta udalerrri aske bihurtzea.

EAeren udal multzoaren kontu orokorrak eta lurralde historikoen araberrako banaketa, eta udalaz gaindiko entitate multzoaren kontuak eta emandako zerbitzu motaren araberrako banaketa likidazioak txertatetik eskuratu dira, ia gehienak fiskalizatu gabeak, 235 udalek (ehuneko 93,25) eta udalaz gaindiko 52 entitatek iritsarazi dizkigutenak (ehuneko 82,54).

23 udalek eta udalaz gaindiko 8 erakundek aurkeztu dituzte kontu auditatuak eta HKEEk, gainera, 10 udal eta udalaz gaindiko 2 erakunde fiskalizatu ditu.

Aztertutako udal eta udalaz gaindiko entitateek antolamenduan 79 erakunde autonomo, 104 udal sozietate publiko eta 4 enpresa-entitate publiko besarkatzen dituzte, ondotik erakutsiko dugun laburpenaren arabera. Xehakapena honako lotunean dago jaso:

- <http://www.tvcp.eu/informes.asp>

	ERAKUNDE KOPURUA		
	ERAKUNDE AUTONOMOAK	SOZIEKATE PUBLIKOAK	ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOAK
Udaletakoak:			
Araba	7	14	—
Bizkaia	37	37	2
Gipuzkoa	33	43	2
Udalaz gaindikoak:			
Partzuergoak	—	4	—
Mankomunitateak	2	6	—
Kuadrillak	—	—	—
Partzoneriak	—	—	—
<b>EAE GUZTIRA</b>	<b>79</b>	<b>104</b>	<b>4</b>

Gainera, 25 fundaziotan parte hartzen dutela baieztatu dute 24 udalek eta udalaz gaindiko entitate batek.

Txosten honetan aurkeztu ditugun ondorioetarako, 2.052.679ko biztanleria hartu da aintzat, eskatutako informazioa igorri duten Euskal Autonomia Erkidegoko 235 udaletan 2017ko urtar-rilaren 1ean zeuden biztanleak, alegia.

Txosten honetako ondorioak eskuratzeko finkatutako biztanleria mailak honako hauek dira:

GERUZA	UDAL KOP.	BIZT. KOP. 17/1/1
> 50.000	6	1.019.030
20.001 - 50.000	10	307.226
10.001 - 20.000	22	321.938
5.001 - 10.000	27	193.236
1.001 - 5.000	75	168.003
< 1.001	95	43.246
EAE GUZTIRA	235	2.052.679
ARABA	48	319.956
BIZKAIA	107	1.039.927
GIPUZKOA	80	692.796

Udalaz gaindiko entitateetan zerbitzua ematen zaion biztanleria, zerbitzu motaren arabera, honakoa da kontuak prozesatu diren 52 entitateetan:

JARDUERA	ERAKUNDE KOPURUA	BIZTANLERIA ARTATUA
1. Ura eta saneamendua	11	1.886.398
2. Udal zerbitzuen kudeaketa	7	274.711
3. Hiri hondakin solidoak	8	1.545.372
4. Gizarte ongizatea	9	228.503
5. Arabako Kuadrillak	6	79.598
6. Sustapena eta irakaskuntza, euskara eta lanerako prestak	4	70.157
7. Partzoneriak eta baso ustiapena	5	63.183
8. Suteak itzaltzea	1	25.523
9. Garraioak	1	750.764

Lana egiteko honako prozedura hauek erabili ditugu:

– 2017ko ekitaldiko kontu orokorren analisia. Azterlan hau oinarri izan da toki entitateek, informatzeko betebeharrari dagokionez, legedia zein neurritan betetzen duten zehazteko.

– Udal eta udalaz gaindiko entitate guztien kontu orokorren atal diren balantzeen, ekonomia-ondareko emaitzaren kontuen eta aurrekontuen likidazioen azterketa berariazkoa; ezargarria zaien arautegian eskatutako informazio osoa barne hartzen dutela eta agiri guztiak elkarren artean koherenteak direla egiaztatu da.

– Udal eta udalaz gaindiko erakunde guztien balantzeen, ekonomia-ondareko emaitzaren kontuen eta aurrekontuen likidazioen azterketa berariazkoa, ekonomia-finantza izaerako adierazleak eskuratzeko.

Udalek eta udalaz gaindiko entitateek igorritako agirien edukia aztertzean hiru akats mota bereizi ditugu:

– Aurrekontu, aurrekontuen likidazio eta kontu orokorra onesteko epeetan eragina dutenak.

– Kontu orokorra eragiten dutenak, bai eduki formalari dagokionez, bai informazioaren eduki kualitatiboari dagokionez ere.

– Aurreko ekitaldietako Gastu orokorretarako diruzaintzako geldikin negatiboen finantzaketa moldeari erreferentzia egiten dietenak.

Txostenaren datu ekonomikoak milako eurotan daude emanak eta dezimalik ez erakusteko biribildu dira; datuek beti balio zehatz bakoitzaren biribiltzea erakusten dute eta ez biribildutako datuen batuketara.

## II. Ondorioak

### II.1. Udalen Kontuak.

Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako Toki Entitateen Aurrekontuko Foru Arauek agintzen dute Toki Entitateek HKEEri Kontu Orokorra aurkeztuko diotela, beren berariazko arautegiak agintzen duen terminoetan behar bezala onetsia; berebat, HKEEren sortze legearen 9.5 artikulua agintzen du nahitaezkoa dela Epaitegi honi Toki Entitateen Aurrekontuen likidazioari dagokion dokumentazioa igortzea, egin edo onesten denetik aurrera hilabeteko epean. Alegria-Dulantzi, Amezketara, Artea, Asteasu, Durango, Elduain, Gaintza, Idiazabal, Leintz-Gatzaga, eta Ondarroako Udalek urratu egin dute obligazio hau. Altzo, Aiara, Andoain, Astigarraga, Erandio, Erriberagoitia eta Santurtziko Udalen kontu orokorrak epeaz kanpo jaso dira, behin-behineko txostena behin egin zegoela, eta honenbestez, ezin barne hartu izan dira txostenaren ondorioetan.

Ondotik azalduko ditugun ondorioak EAEn 25 udalek igorritako datuetatik eskuratu dira. Datu horien arabera, EAEn Udalen ehuneko 93,25ek aitortzen dizkio kontuak Epaitegi honi.

A.3.1 eranskinean banaka zehazten dira aztertutako 235 udaletan aurkitutako akatsak. Azpimarratu behar dugu udalerrien ehuneko 16,59 egiten duten 39 udaletan ez dela arestian aipatutako eranskinetan zehaztutako hutsetatik batere azaleratu; horietatik 7, Arabako Lurralde Historikoan daude; 11, Bizkaiko Lurralde Historikoan eta 21, Gipuzkoako Lurralde Historikoan.

Onespen epeak.

– 128 udalek aurrekontuak 2017ko lehenengo sei hilekoan onetsi zituzten eta 5ek, berriz, ekitaldiaren bigarren sei hilekoan.

Aurrekontua dagokion ekitaldia hasi aurretik onetsi behar da, Lurralde Historiko bakoitzaren Aurrekontuko Foru Arauen 15.2 artikulua agintzen duenaren arabera. Aztertu ditugun 235 udaletatik ehuneko 40,85ek bakarrik onetsi ditu 2017ko aurrekontuak ekitaldia hasi aurretik. Hona hemen aurrekontuen onespen aldien arabera sailkatutako udal kopurua:

AURREKONTUEN ONESPENA	UDAL KOPURUA	%
2017/01/1 baino lehenago	96	% 40,85
2017ko 1. hiruhilekoa	92	% 39,15
2017ko 2. hiruhilekoa	36	% 15,32
2017ko 2. sei hilekoa	5	% 2,13
Aurrekontu luzatua	6	% 2,55

– 27 udaletan aurrekontuaren likidazioak indarreko arautegiak agindutako data baino beranduago onetsi dira eta 1 udalean ez dago jasota likidazioa onartu denik.

Lurralde historiko bakoitzaren Aurrekontuko Foru Arauen 49. artikulua hurrengo ekitaldiko martxoaren 31n jartzen du Erakundearen lehendakariak aurrekontuak onesteko epemuga. 235 udalen ehuneko 88,08k 2017ko ekitaldiaren aurrekontu likidazioa 2018ko apirilaren 1a baino lehenago onetsi du; gainerako ehuneko 11,92ak, berriz, aurrekontuko arautegiak finkatutako epea urratu du.

Hona hemen aurrekontuen likidazioaren onespén aldien arabera sailkatutako udal kopurua:

LIKIDAZIOAREN ONESPENA	UDAL KOPURUA	%
2018/04/1 baino lehenago	207	% 88,08
2018/04/1 eta 2018/07/31 bitartean	26	% 11,06
2018/08/1 eta 2018/12/31 bitartean	1	% 0,43
Ebidentzia/informaziorik gabe	1	% 0,43

– 70 udalek Kontu Orokorra arautegiak agindutako data baino beranduago onetsi dute eta 9 udaletan ez dago jasota Kontu Orokorra onetsi denik.

Lurralde historiko bakoitzaren Aurrekontuko Foru Arauen 63. artikulua hurrengo ekitaldiko uztailearen 31n jartzen du Entitatearen Osoko bilkurak aurrekontua onesteko epemuga. 235 udalen ehuneko 66,38k Kontu Orokorra arautegiak agintzen duen epean onetsi du. Hona hemen Kontu Orokorra onesteko aldien arabera sailkatutako udal kopurua:

KONTU OROKORRAREN ONESPENA	UDAL KOPURUA	%
2018/08/1 baino lehenago	156	% 66,38
2018/04/1 eta 2018/12/31 bitartean	68	% 28,94
2019/01/1 baino beranduago	2	% 0,85
Ez dago jasoa onartu denik	9	% 3,83

Kontu Orokorraren eta likidazioaren eduki formala.

Hona hemen kontuen edukian beste zenbait akats:

AKATSAK	UDAL KOPURUA 2017
Ez dago balantzerik	1
Ez dago ekonomia-ondarearen emaitzaren konturik	1
Ez dago ondare garbian aldaketan egoerarik	19
Ez dago eskudiruzko fluxuen egoerarik	10
Ez dago aurrekontuaren likidazioaren egoerarik	1
Ez da oroitidazkia barne hartu	7
Ez da banku-ohar edo ziurtagiririk eta kontziliaziorik barne hartu	36
Ez da aurrekontu eta kontularitzako emaitzen kontziliazio-egoerarik barne hartu	10
Ez da diruzaintza kontua jaso	31
Ez da udal zorrari buruzko informaziorik jaso	2

Kontu Orokorra osatzen dute: balantzeak, ekonomia eta ondarearen emaitzaren kontuak, ondare garbian aldaketan egoerak, eskudiruzko fluxuen egoerak, aurrekontuaren likidazio egoerak eta memoriak; eta Udalak ekonomia, finantza, ondare eta aurrekontuko gaietan gauzatu duen kudeaketa erakusten du. Kontu Orokorra mamitu eta onartzeko obligazioa hiru lurralde historikoen foru arauetan dago xedatua eta hala ez egiteak erakunde hauen kudeaketan buru egin behar duen gardentasuna eragiten du.

Kontu Orokorraren eduki kualitatiboa.

– Udaletan gauzatzen den ondare-kontabilitateak, kasu ugaritan, oraindik ez du eduki zuzena. Honela, bada, 58 udalek ez dituzte Balantzean edo ekonomia eta ondarearen emaitzen kontuan ibilgetuaren amortizazioak txertatzen eta horietatik 52, 5.000 biztanle baino gutxiagoko udalerriek gabe.

– Gainera, badira 3 udal, 24 hilabetetik gorako antzinateko kobratzeko zorrak izanik, kobragarritasun azterketarik ez dutenak eta Diruzaintza geldikinetik inongo kopururik deduzitu ez dutenak.

– Hona hemen kontuen edukian beste zenbait akats:

		UDAL KOPURUA 2017
AURREKONTUKO AKATSAK:		
Oker kalkulaturako aurrekontu emaitza		4
Ez dira kalkulatu ekitaldiko aurrekontuaren emaitzen zuzenketak		1
Ez da kalkulatu Geldikina atxikitako finantzaketa duten gastuetarako		1
ONDAREKO AKATSAK:		
Zorren eranskina ez dator bat balantzearekin		9
Balantzean kaudimen-gabeziarako zuzk. diruz. geldikinarena baino txikiagoa		5

Gastu orokor negatiboetarako Diruzaintza Geldikinaren finantzaketa.

15/12/31n Gastu orokorretarako geldikin negatiboa zuen entitate bat zegoen eta ez du 17/12/31n finantzatu, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuko Foru Arauren 49.4 artikulua urratuz.

## II.2. Udalaz gaindiko Kontuak.

Honako entitate hauek ez dituzte 2017ko ekitaldiko kontuak igorri, LH bakoitzeko Aurrekontuko Foru Arauen 63.5 artikulua urratuz: Iruña Okako Ur Partzuergoak; Haranako Uren Partzuergoak; La Lombako Uren Partzuergoak; Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoak; Lea Artibaiko Amankomunazgoak; Busturialdeko Mankomunitateak, Gizarte Zerbitzuen Mungialde Mankomunitateak eta Debabe Udal Euskaltegien Mankomunitateak. Epez kanpo eta behin-behineko txostena jada eginga zegoela jaso dasa Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea entitatearen kontu orokorra eta honenbestez, ezin sartu izan da txostenaren ondorioetan. Gainera, ezinezkoa izan da Kuartangoko Uren Partzuergoaren eta Ekialdeko Lautadako Uren Partzuergoaren kontuak barne hartzea (erakunde honek ez du jarduera abiarazi), indarreko legeriak agintzen duenarekiko bat datozen egiturak ez izateagatik.

Hemen azalduko ditugun ondorioak EAEren udalaz gaindiko 52 entitatek igorritako datuetatik eskuratu ditugu eta horrek esan nahi du EAEko udalaz gaindiko entitateen ehuneko 82,54k aitortzen dizkiotela kontuak Epaitegi honi.

A.3.2 eranskinean zehazten dira udalaz gaindiko entitate bakoitzean aurkitutako akatsak. Azpimarratu behar dugu udalerrien ehuneko 23,08 egiten duten 12 udalaz gaindiko entitatetan ez dela arestian aipatutako eranskinetan zehaztutako hutsetatik batere azaleratu; horietatik 5 Arabako Lurralde Historikoan daude eta 3, 4 Bizkaiko Lurralde Historikoan eta 3 Gipuzkoako Lurralde Historikoan.

## Onespen epeak.

– 24 entitatetan aurrekontuak onartu ziren aurrekontuko arautegiak finkatzen duen data igarota; horietatik 21ek 2017ko lehenengo seihilekoan onartu zituzten, 2k bigarren seihilekoan eta 1ek 2018ko urtarrilaren 1a igarota. Aurrekontua dagokion ekitaldia hasi aurretik onetsi behar da, Lurralde Historiko bakoitzaren Aurrekontuko Foru Arauen 15.2 artikulua agintzen duenaren arabera. Aztertu ditugun EAEren udalaz gaindiko 52 entitateetatik ehuneko 48,08k bakarrik onetsi ditu 2017ko aurrekontuak ekitaldia hasi aurretik. Hona hemen aurrekontuen onespenaldien arabera sailkatutako entitate kopurua:

AURREKONTUEN ONESPENA	ENTITATE KOPURUA	%
2017/01/1 baino lehenago	25	% 48,08
2017ko 1. hiruhilekoa	14	% 26,92
2017ko 2. hiruhilekoa	7	% 13,46
2017ko 2. seihilekoa	2	% 3,85
2018/01/1 baino beranduago	1	% 1,92
Luzatutako aurrekontua	3	% 5,77

— 6 erakundek aurrekontu-likidazioa aurrekontu-arautegiak agintzen duen data baino beranduago onetsi zuten. Lurralde historiko bakoitzaren Aurrekontuko Foru Arauen 49. artikulua hurrengo ekitaldiko martxoaren 31n jartzen du Erakundearen lehendakariak aurrekontuak onesteko epemuga. Udalaz gaindiko 52 entitateen ehuneko 86,46k 2017ko ekitaldiaren aurrekontu likidazioa 2018ko apirilaren 1a baino lehenago onetsi du. Hona hemen, udalaz gaindiko entitateek aurrekontuaren likidazioa zein alditan onetsi duten erakutsiko digun taula:

LIKIDAZIOAREN ONESPENA	ENTITATE KOPURUA	%
2018/04/1 baino lehenago	46	% 88,46
2018/04/1 eta 2018/07/31 bitartean	5	% 9,62
2018/08/1 eta 2018/12/31 bitartean	1	% 1,92

— 11 entitatetan Kontu Orokorra aurrekontu-arautegiak agindutako data baino beranduago onetsi zen eta 8 entitatetan ez dago erasota onartu dutenik. Lurralde historiko bakoitzaren Aurrekontuko Foru Arauen 63. artikulua hurrengo ekitaldiko uztailearen 31n jartzen du Entitatearen Osoko bilkurak aurrekontua onesteko epemuga. Udalaz gaindiko 33 entitatek baizik ez dute Kontu Orokorra indarreko aurrekontu-arautegiak emandako epean onetsi; horiek udal guztien ehuneko 63,46 egiten dute. Onespen aldien arabera sailkatutako erakunde kopurua honakoa da:

KONTU OROKORRAREN ONESPENA	ENTITATE KOPURUA	%
2018/08/1 baino lehenago	33	% 63,46
2018/08/1 eta 2018/12/31 bitartean	10	% 19,23
2019/01/01 baino beranduago	1	% 1,92
Ez dago jaso onartu denik	8	% 15,39

Kontu Orokorraren eta likidazioaren eduki formala.

Hona hemen kontuen edukian beste zenbait akats:

AKATSAK	ENTITATE KOPURUA 2017
Ez dago balantzerik	4
Ez dago ekonomia-ondarearen emaitzaren konturik	4
Ez dago ondare garbian aldaketen egoerarik	9
Ez dago eskudiruzko fluxuen egoerarik	5
Ez dago aurrekontuaren likidazioaren egoerarik	3
Ez da oroitidazkia barne hartu	6
Ez dago diru-kontaketa aktarik	4
Ez da banku-ohar edo ziurtagiririk eta kontziliaziorik barne hartu	12
Ez da aurrekontu eta kontularitzako emaitzen kontziliazio-egoerarik barne hartu	6
Ez da diruzaintza kontua jaso	13
Ez da udal zorrari buruzko informaziorik jaso	5

Kontu Orokorraren eduki kualitatiboa.

Hona hemen kontuen edukian beste zenbait akats:

	ENTITATE KOPURUA 2017
<b>AURREKONTUKO AKATSAK</b>	
Oker kalkulaturako aurrekontu emaitza	1
Ez dira kalkulatu ekitaldiko aurrekontuaren emaitzen zuzenketak	5
Ez da kalkulatu Geldikina atxikitako finantzaketa duten gastuetarako	5
<b>ONDAREKO AKATSAK:</b>	
Balantzeak edo Emaitzen Kontuak ez dute amortizazioa jasotzen	12
Zorraren eranskina ez dator bat balantzearekin	1



Gastu orokor negatiboetarako Diruzaintza Geldikinaren finantzaketa.

15/12/31n Gastu orokorretarako geldikin negatiboa zuten udalaz gaindiko 2 entitatek eta z dute 17/12/31n finantzatu, lurralde historiko bakoitzeko Toki Entitateen Aurrekontuko Foru Arauaren 49.4 artikulua urratuz.

### III. Ratioak eta Adierazleak

Txosten honetan islatzen diren adierazleak kalkulatzeko Toki Korporazioen Kontu Orokorreko adierazleak baliatu dira, Kontuen Epaitegiko tokiko esparrua Koordinatzeko Batzordeak eta autonomia erkidegoetako Kanpo Kontrolerako Organoek erabaki bidez 2013ko maiatzaren 7an hartu zituztenak, zenak gerora, toki administratiorako kontabilitateko jarraibide berrietara egokitu baitira, eta 2017ko ekitaldiko urteko kontuei ezargarriak baitzaizkie.

#### III.1. Udal Adierazleak 2017/12/31n.

Udal adierazleak kalkulatzeko aztergai izan ditugun 235 udalen aurrekontu-likidazioei dagozkien datuak erabili dira. Adierazleak eta eskuratutako likidazioen laburpenak, banaka jaso ditugu ondoko lotunean:

- <http://www.tvcp.eu/informes.asp>

##### III.1.1. Finantzako Adierazleak.

Berehalako likidezia, epe laburreko likidezia eta likidezia orokorra.

Ratio hauek erakusten dute udalek zorrean dituzten ordainketei aurre egiteko duten gaitasuna. Biztanleria geruzaren arabera batez besteko baloreak honako hauek dira:

GERUZA	UDAL KOP.	BEREHALAKO LIKIDEZIA	LIKIDEZIA EPE LAB.	LIKIDEZIA OROKORRA
ARABA				
>50.000	1	% 38,08	% 94,72	% 94,72
20.001-50.000	—	—	—	—
10.001-20.000	2	% 388,97	% 459,47	% 459,47
5.001-10.000	1	% 59,08	% 123,56	% 123,56
1.001-5.000	15	% 335,77	% 498,69	% 498,69
<1.001	29	% 244,91	% 332,48	% 332,48
ARABA BATEZ BESTE	48	% 70,88	% 134,26	% 134,26
BIZKAIA				
>50.000	3	% 129,15	% 189,17	% 189,17
20.001-50.000	5	% 317,08	% 348,78	% 348,78
10.001-20.000	9	% 140,91	% 211,41	% 211,56
5.001-10.000	12	% 279,64	% 346,55	% 346,55
1.001-5.000	40	% 349,29	% 403,01	% 415,77
<1.001	38	% 304,33	% 342,71	% 390,68
BIZKAIA BATEZ BESTE	107	% 185,61	% 243,37	% 245,65
GIPUZKOA				
>50.000	2	% 82,05	% 213,45	% 213,45
20.001-50.000	5	% 184,96	% 335,61	% 336,84
10.001-20.000	11	% 289,17	% 438,05	% 438,49
5.001-10.000	14	% 182,30	% 291,97	% 295,70
1.001-5.000	20	% 217,63	% 301,01	% 301,16
<1.001	28	% 347,61	% 561,23	% 561,82
GIPUZKOA BATEZ BESTE	80	% 168,91	% 302,78	% 303,62
EAE				
>50.000	6	% 86,65	% 159,70	% 159,70
20.001-50.000	10	% 255,01	% 342,59	% 343,17
10.001-20.000	22	% 222,49	% 329,20	% 329,48
5.001-10.000	27	% 217,91	% 308,39	% 310,46
1.001-5.000	75	% 317,73	% 396,48	% 404,28
<1.001	95	% 287,83	% 377,36	% 397,39
EAE BATEZ BESTE	235	% 152,17	% 233,30	% 234,60

## Zorpetzea.

Zorpetze-mailen baloraziorako biztanle-geruzaren arabera kalkulatu dira biztanleko zorpetze-adierazleak, finantza zorraren maila sarrera arruntei dagokienez eta 2017/12/31ko finantza zorra amortizatzeko balioetsitako aldia.

GERUZA	UDAL KOP.	BIZTANLEKO ZORPETZEA (*)	FINANTZ. ZORRA SARR. ARR. GAIN.	FINANTZ. ZORRA AMORT. BALIOTS. EPEA (**)
ARABA				
>50.000	1	788	% 29,36	3
20.001-50.000	—	—	—	—
10.001-20.000	2	139	% 0,57	—
5.001-10.000	1	1.462	% 107,76	5
1.001-5.000	15	353	% 5,58	—
<1.001	29	581	% 15,55	1
ARABA BATEZ BESTE	48	697	% 25,92	2
BIZKAIA				
>50.000	3	313	% 3,34	—
20.001-50.000	5	277	% 11,96	1
10.001-20.000	9	348	% 9,26	1
5.001-10.000	12	266	% 8,02	1
1.001-5.000	40	359	% 11,83	1
<1.001	38	364	% 5,78	—
BIZKAIA BATEZ BESTE	107	313	% 6,58	1
GIPUZKOA				
>50.000	2	781	% 36,34	3
20.001-50.000	5	468	% 16,57	1
10.001-20.000	11	438	% 16,26	1
5.001-10.000	14	419	% 15,03	1
1.001-5.000	20	417	% 21,55	1
<1.001	28	507	% 14,19	—
GIPUZKOA BATEZ BESTE	80	563	% 24,01	1
EAE				
>50.000	6	542	% 18,29	2
20.001-50.000	10	359	% 14,15	1
10.001-20.000	22	374	% 12,31	1
5.001-10.000	27	375	% 14,34	1
1.001-5.000	75	374	% 13,30	1
<1.001	95	465	% 10,74	—
EAE BATEZ BESTE	235	457	% 15,90	1

(\*) Euroak/biztanleko.

(\*\*) Ekitaldi kopurua.

EAEren batez besteko zorra biztanleko 457 euro da. 7 udalek 2017/12/31n biztanleko zorra batez bestekoa baino nabarmen handiagoa dute (1.375 eta 4.420 euro bitartean biztanleko).

Finantza zorra amortizatzeko balioetsitako epeak adierazten du finantza zorra zenbat ekitaldian amortizatu daitekeen, egungo sarrera eta gastu arrunten mailarekin. 2017ko ekitaldian toki entitateen multzoaren sarrera arrunt guztien gaineko finantza zorraren proportzioa ehuneko 15,90 da; gastu arruntak deduzituz gero, ekitaldi bateko batez besteko epea beharko litzateke finantza zorra osotasunean kitatzeko sarrera arrunten soberakinaren bidez. Ratio honen banako azterketan, 10 udaletan finantza zorra amortizatzeko balioetsitako epea 3 urtetik gorakoa da (batez bestekoa baino ehuneko 150 epe handiagoa) eta horietatik 2tan epea 5 urtetik gorakoa da. Hiru udalek 2017an emaitza arrunt negatiboa izan dute.

Honako taula honetan zorpetzearen adierazlea kalkulatu da; adierazle honek neurtzen du zein lotura dagoen erakundeak hirugarrenen aurrean bere gain hartzen duen pasiboaren eta erakundearen finantzaketa-iturri guztien (baliabide propioak eta besteenak) artean. Zorpetze-erlazioa zutabeak neurtzen du pasibo arrunt eta ez arruntaren arteko zatidura.

GERUZA	UDAL KOP.	ZORPETZE ERLAZIOA	ZORPETZEA
ARABA			
>50.000	1	% 17,10	% 142,05
20.001-50.000	—	—	—
10.001-20.000	2	% 3,83	% 2.102,23
5.001-10.000	1	% 18,12	% 23,28
1.001-5.000	15	% 4,12	% 193,59
<1.001	29	% 7,07	% 242,30
ARABA BATEZ BESTE	48	% 13,80	% 142,38
BIZKAIA			
>50.000	3	% 5,66	% 515,45
20.001-50.000	5	% 5,82	% 123,31
10.001-20.000	9	% 6,23	% 280,46
5.001-10.000	12	% 3,42	% 203,11
1.001-5.000	40	% 3,05	% 173,42
<1.001	38	% 2,23	% 358,08
BIZKAIA BATEZ BESTE	107	% 4,90	% 292,40
GIPUZKOA			
>50.000	2	% 21,67	% 47,91
20.001-50.000	5	% 11,17	% 62,78
10.001-20.000	11	% 7,13	% 90,54
5.001-10.000	14	% 8,41	% 108,61
1.001-5.000	20	% 9,79	% 75,86
<1.001	28	% 3,10	% 79,64
GIPUZKOA BATEZ BESTE	80	% 11,92	% 63,45
EAE			
>50.000	6	% 11,21	% 132,02
20.001-50.000	10	% 7,95	% 84,87
10.001-20.000	22	% 6,57	% 145,81
5.001-10.000	27	% 5,90	% 115,59
1.001-5.000	75	% 4,04	% 136,72
<1.001	95	% 3,35	% 197,23
EAE BATEZ BESTE	235	% 8,14	% 126,88

Toki entitateen multzoari dagokionez, zorpetzeak pasibo guztiaren gainean ehuneko 8,14 egiten du, nahiz tamaina handiagoko udaletan proportzioa ehuneko 11,21era igo zen; horren ondorioz, tamaina txikiagoa duten udalen aldean kanpoko finantzaketarekiko mendekotasun handiagoa daukate; bada, 1.000 biztanletik beherako udaletan ehuneko 3,35koa da.

EAEko Udalek foru aldundiei itunpeko zergetan udal partaidetzagatiko likidazio negatiboen kontzeptuan guztira 27 milioi euro dituzte itzultzeko; guztiak ere Arabako udalerriei dagozkie.

## Cash-Flow.

Honako taula honetan erakusten da kudeaketa jarduerengatiko eskudiruzko fluxu garbiek zein neurritan estaltzen duten erakundearen pasiboa, biztanleria geruzaren arabera bereizia.

GERUZA	UDAL KOP.	CASH -FLOW
ARABA		
>50.000	1	% 498,32
20.001-50.000	—	—
10.001-20.000	2	% 897,95
5.001-10.000	1	% 440,85
1.001-5.000	15	% 77,93
<1.001	29	% 106,49
ARABA BATEZ BESTE	48	% 369,74
BIZKAIA		
>50.000	3	% 245,46
20.001-50.000	5	% 255,39
10.001-20.000	9	% 309,41
5.001-10.000	12	% 166,26
1.001-5.000	40	% 79,47
<1.001	38	% 97,24
BIZKAIA BATEZ BESTE	107	% 195,45
GIPUZKOA		
>50.000	2	% 585,01
20.001-50.000	5	% 199,94
10.001-20.000	11	% 183,54
5.001-10.000	14	% 243,29
1.001-5.000	20	% 135,29
<1.001	28	% 75,72
GIPUZKOA BATEZ BESTE	80	% 279,45
EAE		
>50.000	6	% 397,45
20.001-50.000	10	% 221,10
10.001-20.000	22	% 225,17
5.001-10.000	27	% 219,79
1.001-5.000	75	% 90,30
<1.001	95	% 93,28
EAE BATEZ BESTE	235	% 256,15

Ondarearen emaitza ekonomikoaren kontuaren ratioak.

Sarreren egitura:

Ondoko ratio hauek erakusten dute ondarearen emaitza ekonomikoko kontuaren sarrera bakoitzak erakundearen kudeaketa arrunteko sarrera guztien aldean zenbateko garrantzia erlatiboa duen.

GERUZA	UDAL KOP.	ZERGA ETA HIRIGINT. SARRERAK	JASOT. DIRU-LAG. ETA TRANSF.	SALMEN. ETA ZERB. EMAKIDA	KUD. ARR. GAIN. SARR.
ARABA					
>50.000	1	% 37,37	% 55,39	% 4,86	% 2,38
20.001-50.000	—	—	—	—	—
10.001-20.000	2	% 38,79	% 57,80	% 0,13	% 3,28
5.001-10.000	1	% 49,42	% 47,97	% 0,51	% 2,10
1.001-5.000	15	% 42,47	% 52,07	% 1,14	% 4,32
<1.001	29	% 36,71	% 57,49	% 1,77	% 4,03
ARABA BATEZ BESTE	48	% 38,05	% 55,20	% 4,08	% 2,67

GERUZA	UDAL KOP.	ZERGA ETA HIRIGINT. SARRERAK	JASOT. DIRU-LAG. ETA TRANSF.	SALMEN. ETA ZERB. EMAKIDA	KUD. ARR. GAIN. SARR.
BIZKAIA					
>50.000	3	% 33,59	% 59,88	% 0,30	% 6,23
20.001-50.000	5	% 36,97	% 59,55	% 1,49	% 1,99
10.001-20.000	9	% 39,04	% 57,97	% 0,95	% 2,04
5.001-10.000	12	% 43,70	% 52,36	% 1,36	% 2,58
1.001-5.000	40	% 42,28	% 53,33	% 0,36	% 4,03
<1.001	38	% 25,11	% 67,48	% 0,81	% 6,60
BIZKAIA BATEZ BESTE	107	% 36,14	% 58,56	% 0,65	% 4,65
GIPUZKOA					
>50.000	2	% 44,60	% 51,66	% 0,35	% 3,39
20.001-50.000	5	% 43,01	% 54,15	% 0,58	% 2,26
10.001-20.000	11	% 40,72	% 55,88	% 0,14	% 3,26
5.001-10.000	14	% 40,72	% 55,72	% 1,61	% 1,95
1.001-5.000	20	% 37,33	% 60,55	% 0,06	% 2,06
<1.001	28	% 38,97	% 54,85	% 0,14	% 6,04
GIPUZKOA BATEZ BESTE	80	% 42,38	% 54,19	% 0,50	% 2,93
EAE					
>50.000	6	% 37,24	% 56,76	% 1,41	% 4,59
20.001-50.000	10	% 39,84	% 56,99	% 1,06	% 2,11
10.001-20.000	22	% 39,95	% 56,81	% 0,46	% 2,78
5.001-10.000	27	% 42,27	% 54,03	% 1,47	% 2,23
1.001-5.000	75	% 41,08	% 54,91	% 0,43	% 3,58
<1.001	95	% 32,37	% 61,05	% 0,94	% 5,64
EAE BATEZ BESTE	235	% 38,61	% 56,51	% 1,14	% 3,74

## Gastuen egitura:

Ondoko ratio hauek erakusten dute ondarearen emaitza ekonomikoko kontuaren sarrera bakoitzak erakundearen kudeaketa arrunteko gastu guztien aldean zenbateko garrantzia erlatiboa duen.

GERUZA	UDAL KOP.	LANGILERIA GASTUAK	EMAND. DIRU-LAG. ETA TRANSF.	HORNID.	GAINER. GTU. ARRUNTAK
ARABA					
>50.000	1	% 42,97	% 13,13	—	% 43,90
20.001-50.000	—	—	—	—	—
10.001-20.000	2	% 43,15	% 7,91	—	% 48,94
5.001-10.000	1	% 23,41	% 6,16	—	% 70,43
1.001-5.000	15	% 24,03	% 12,46	—	% 63,51
<1.001	29	% 23,99	% 17,12	% 0,78	% 58,11
ARABA BATEZ BESTE	48	% 40,21	% 12,86	% 0,04	% 46,89
BIZKAIA					
>50.000	3	% 30,05	% 24,77	% 5,42	% 39,76
20.001-50.000	5	% 35,14	% 13,13	% 6,45	% 45,28
10.001-20.000	9	% 33,94	% 18,27	% 1,51	% 46,28
5.001-10.000	12	% 30,62	% 14,78	% 5,78	% 48,82
1.001-5.000	40	% 28,33	% 15,93	—	% 55,74
<1.001	38	% 37,88	% 14,52	% 0,48	% 47,12
BIZKAIA BATEZ BESTE	107	% 31,30	% 20,45	% 4,55	% 43,70
GIPUZKOA					
>50.000	2	% 30,16	% 30,72	—	% 39,12
